



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 1a

73. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroak FITUR 2021 azokan parte hartzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (3. or.).
- Galdera, ikasleak Europako hezkuntza-sistema ezberdinen artean mugitzeari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (4. or.).
- Galdera, 2021-22 ikasturterako onarpen-prozesuari buruzko araudi berriari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (4. or.).
- Galdera, ikasleak sexuaren arabera ez bereizteari dagokionez legedi indarduna betetzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Caixabankeko lehendakari berriaren ordainsariaren proposamena dela-eta Nafarroako Kutxa Fundazioak izan zuen jarrerari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, 2021-2022 ikasturtean eskolaldi jarraitua nahitaezkoa izateari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresetan langileen eskubideen aurka egindako delituei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Kultura eta Kirol Departamentuak toki entitateei pandemiatik heldu diren aparteko gastuak konpentsatzeko aukerari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).
- Galdera, albaramendu delituagatik kondenatuei indultua emateari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako zahar-etxeetan pandemian zehar hilkortasun-inpaktuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroko zuzendaritzaren dimisioari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren deialdietan euskara merezimendu gisa baloratzeari buruzkoa. Blanca Regúlez Álvarez andreak egin du (10. or.).
- Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskumena Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (11. or.).

- Galdera, AstraZenecaren bigarren dosia jasotzeko baimen informatua sinatu behar izateari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko obrei aurre egiteko finantzabideei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, berdintasunerako, indarkeria ezarako eta bizikidetzarako hezkuntza afektibo-sexualari buruzkoa. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (12. or.).
- Galdera, enpleguaren egoerari eta horren aurreikuspenei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, gazteendako landa eremurako erasmus bat ezartzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Araua, Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko lau kide hautatzeko (15. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroak FITUR 2021 azokan parte hartzeari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Nafarroak FITUR 2021 azokan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Aurten ere, Foru Komunitateak parte hartu du Nazioarteko Turismo Azokan, eta bertan Nafarroa destino seguru gisa aurkeztu da, jasangarritasun-parametroak aplikatzen dituen eta berrikuntza teknologikoa inklusio turistikoaren zerbitzura jartzeko duena.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateak FITUR 2021ean izandako parte-hartzeari buruz?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, ikasleak Europako hezkuntza-sistema ezberdinen artean mugitzeari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, ikasleak Europako hezkuntza-sistema ezberdinen artean mugitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Solana Arana andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Unibertsitateetako Ministerioak konpromisoa hartu du bermatzeko oztopoak kenduko direla ikasleak Europako hezkuntza-sistemen artean mugitu ahal daitezen, eta horrek eragin nabarmena dauka Euroeskualdeko Pirinioez bi aldetako ikasleengan. Zertan datza mugikortasunerako oztopoak kentze hori?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

Galdera, 2021-22 ikasturterako onarpen-prozesuari buruzko araudi berriari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2021-22 ikasturterako onarpen-prozesuari buruzko araudi berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Berriki jakin dugu Nafarroako hainbat eskualdetako ikastetxeek, udalek eta ikasleen familiek salaketa publikoa egin dutela, 2021-22 ikasturterako onarpen-prozesuaren araudi berriak berekin ekarriko dituen ondorioengatik. Kontua da D ereduaren kasuan problematika espezifiko bat gertatzen dela, Batxilergoko ikasketak euskaraz egiten jarraitu ahal izateko zenbait eskualdetatik —Tafalla, Zangoza edo Pirinioak (Garralda, Erronkari eta Otsagabia)— kanpora joan behar izatetik datorrena.

Ikasketak euskaraz egiten dituzten Tafallako eta Zangozako ikasleen kasuan, orain arte aukera zuten puntuak lortzeko Iturrana institutuan Batxilergoa egiteko, bermatuta baitzuten bertaraino lineako autobusaren bidez iritsi ahal izatea. Ikasle

horiek ez dute ikastetxerik atxikita hurbilen dauden ikastetxeetan (Iruñeko eskualdea). Gainera, ez dira agertzen Iruñeko ikastetxeen eragin-eremuetan, eta 0 puntu lortu dituzte, eta haien aurretik Iruñeko ikasle guztiak geratzen dira 4 edo 3 punturekin (nahiz eta plaza beste Batxilergoko ikastetxe batean bermatuta izan).

Pirinioetako ikasleei dagokienez, orain arte izena ematen zuten ikastetxeko helbidea jartzeko aukera zuten ikaslearen helbide gisa (ikasle horiek normalean Iruñera joaten dira bizitzera, askotan familia-pisu batera, eta eskubidea izan beharko lukete ikastetxea erabakitzeko bizi diren auzoa kontuan hartuta; eskola-mapa berriaren ondorioz, ordea, institutu bakarra dute atxikita, eta hartan 4 puntu baino ezin izanen dituzte lortu). Berriz ere, ikasle horien eta Iruñeko eskualdeko gainerako ikasleen arteko konparaziozko bidegabekeria gertatzen da. Pirinioetako eskolek salatu dutenez, “neurri hori indarrean jarri zenetik ia 10 ikasturte igaro ondoren, familiei alde aurretik abisatu gabe eta Arartekoak kontrako bestelako gomendiorik eman gabe, foru-agindu soil batek eta Hezkuntzako kontseilariaren ebazpen batek alde batera utzi dute Parlamentuak erabakitakoa eta bere garaian Arartekoak gomendatu zuena, eta Piri-

nioetako ikasleak eta haien familiak zaldien hankapean jarri dituzte”.

Beste disfuntzio batzuk ere agerian geratu dira; hala nola Arte Batxilergoari dagokiona. Institutu bakarra dago Nafarroa osoan D ereduko Arte Batxilergo eskaintzen duena: Iturramako Institutua. Aurreko ikasturteetan, Nafarroa osoko ikasleei aukera eman zitzaizen ikastetxearen helbidea ikaslearen helbide gisa ager zedin, ikasle guztiak onarpen-prozesuan aukera berberak izan zitzaizten. Gauza bera gertatzen da Barañaingo Alaitz Institutuko D ereduko Arte Eszenikoen Batxilergoarekin. Bi kasuetan, Iruñeritik kanpoko ikasleek 0 puntu izanen dituzte, Iruñerriko ikasle batek 3 lortzen dituen bitartean, eta horrek bidegabekeria larria eragiten du.

Egoera hori ikusita, hona hemen Hezkuntzako kontseilariari egiten diogun galdera:

Nola konponduko ditu Hezkuntza Departamentuak aipatutako ikasleei datorren ikasturterako onarpen-prozesuaren araudi berriak eragindako arazoak eta bidegabekeriak?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, ikasleak sexuaren arabera ez bereizteari dagokionez legedi indarduna betetzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, ikasleak sexuaren arabera ez bereizteari dagokionez legedi indarduna betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballerok,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentuak ekainaren 3an (osteguna) eginen duen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Iragan martxoan jakitera eman zen Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak 2021-2022 ikasturtean jada ez dituela finantzatuko ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeak.

Ikastetxe pribatu-itunduekiko itunak berritzeko unean, Hezkuntzako kontseilariak iragarri zuen une hartan beren ikasleak sexuaren arabera bereizten zituzten bi ikastetxeak –Miravalles-El Redín eta Irabia-Izaga– konprometitu egin zirela LOMLOEren araudia eta ikastetxe itunduen finantzaketari buruzko foru legearen xedapen gehigarria –ezin izanen dute itunik egin sexu bakar bateko ikasleak soilik onartzen dituzten ikastetxeek– betetzera.

Hedabide baten bidez oraintsu jakin dugunez, ikasleak sexuaren arabera bereizten zituzten bi ikastetxe horietako batek –Irabia-Izagak, zehazki– ez zeukan asmorik bere ituna berritu zuenean Hezkuntza Departamentuarekin hartutako konpromisoa –ikasleak sexuaren arabera ez bereiztea– betetzeko.

Informazio hori egia balitz, legedi indardunaren urratze nabarmena izanen litzateke, eta Nafarroako Gobernuak berehala esku hartu beharko luke.

Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak zer egingen du LOMLOEren araudia eta ikastetxe itunduen finantzaketari buruzko foru legearen xedapen gehigarria –ezin izanen dute egin itunik sexu bakar bateko ikasleak soilik onartzen dituzten ikastetxeek– betetzen direla bermatzeko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Caixabankeko lehendakari berriaren ordainsariaren proposamena dela-eta Nafarroako Kutxa Fundazioak izan zuen jarrerari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Caixabankeko lehendakari berriaren ordainsariaren proposamena dela-eta Nafarroako Kutxa Fundazioak izan zuen jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan maiatzaren 14an (ostirala), Caixabankeko Akziodunen Batzarrak, lau ordu baino gehia-

goko bilkuran, besteak beste onetsi zuen entitateko lehendakari José Ignacio Goirigolzarriren eta zuzendaritzako gainontzekoen ordainsaria. Hori dena, 3.448 pertsona –plantillaren % 15, zehazki– ukituko dituen enplegu-erregulazioko espediente bat negoziatzen ari direnean.

Proposamenaren arabera, Goirigolzarrik Bankian zeukan soldata finkoa hirukoiztuko litzateke: ordainsari finkoa 1,65 milioikoa izanen litzateke, gehi 200.000 eurora bitarteko ordainsari aldakor bat eta betetako helburuen arabera jaso lezakeen akzio-sorta bat. Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtsak –Estatuko Gobernuaren mendeko Ebazpen Exekutiboaren Agintaritzan, zeinak akzioen ehuneko 16,15 baitauka– soldata-igoeraren proposamen horren aurka bozkatu zuen.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Nafarroako Kutxa Fundazioak –zeinak Nafarroako Kutxa desagertu ondoren Caixabankeko akzioak baitauzka– zer jarrera izan zuen erabaki hori hartu zenean?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2021-2022 ikasturtean eskolaldi jarraitua nahitaezkoa izateari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, 2021-2022 ikasturtean eskolaldi jarraitua nahitaezkoa izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zer arrazoi dago Nafarroako ikastetxeek 2021-2022 ikasturtean eskolaldi jarraitua nahitaez mantendu behar izan dezaten?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Nafarroako enpresetan langileen eskubideen aurka egindako delituei buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako enpresetan langileen eskubideen aurka egindako delituei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion, langile bat esplotatzeagatik Nafarroako Probintzia Auzitegiko Bigarren Atalak Castillo de Javier hotelaren jabeari orain dela gutxi langileen eskubideen kontrako delituagatik ezarritako bederatzi hilabeteko espetxe-zigorra dela-eta:

Nafarroako Gobernuak ba al zeukan gertakari horren berri eta zer kontrol-tresna baliatu du edo baliatuko du Nafarroako ezein sektore ekonomiko-tako enpresetan etorkizunean halako deliturik gerta ez dadin?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebil-

Galdera, Kultura eta Kirol Departamentuak toki entitateei pandemiatik heldu diren aparteko gastuak konpentsatzeko aukerari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, Kultura eta Kirol Departamentuak toki entitateei pandemiatik heldu diren aparteko gastuak konpentsatzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura eta Kirol Departamentuak ba al du asmorik toki entitateei pandemiatik heldu diren aparteko gastuak konpentsatzeko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, albaramendu delituagatik kondenatuei indultua emateari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, albaramendu delituagatik kondenatuei indultua emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer iritzi dio albaramendu delituagatik kondenatuei indultua emateari buruz?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Nafarroako zahar-etxeetan pandemian zehar hilkortasun-inpaktuari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako zahar-etxeetan pandemian zehar hilkortasun-inpaktuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako kontseilariak zer balorazio egiten du Nafarroako zahar-etxeetan pandemian zehar izandako hilkortasun-inpaktua dela-eta?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroko zuzendaritzaren dimisioari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroko zuzendaritzaren dimisioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak uko egin dio Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa dela-eta har litezkeen erabakiak hartzeari, horrek zuzendaritzak duela ia hiru hilabete dimisioa ematea ekidinen bazuen ere, eta Nafarroako goi-mailako kirolariak eta kirolaren arloko pertsona ospetsuek auzitan jartzen duten erabaki bati eusten dio. Zergatik?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Nafarroako Gobernuaren deialdietan euskara merezimendu gisa baloratzeari buruzkoa.

BLANCA REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren deialdietan euskara merezimendu gisa baloratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zenbait hilabete joan dira Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2019ko urrian 103/2017 Foru Dekretuaren artikulua batzuk indargabetu zituenetik. Indargabetze horrek ezegonkortasun-egoera sortu du, eta milaka pertsonari eragin die, denbora horretan guztian ez baitzaie euskararen ezagutza aitortu Nafarroako Gobernuak onetsitako deialdietan.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuak zer kronograma darabil euskara merezimendu gisa baloratzen duen foru dekretu berri bat ez onesteak berekin dakarren desberdintasun-egoera lehengoratzeko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskumena Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeari buruzkoa.

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskumena Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoa-

ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den maiatzaren 17an, Nafarroako Gobernuak jakitera eman zuen egun horretan bertan Ekonomia eta Ogasuneko eta Eskubide Sozialetako kontseilariak eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministro José Luis Escrivá jaunak Madrilen bilera eginga zutela, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskumena eskualdatzeko prozesuan aurrera egiteko.

Hori dela-eta, Geroa Baik honako hau jakin nahi du:

Zertan da bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskumena Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeko prozesua?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

Galdera, AstraZenecaren bigarren dosia jasotzeko baimen informatua sinatu behar izateari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, AstraZenecaren bigarren dosia jasotzeko baimen informatua sinatu behar izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola baloratzen duzu AstraZenecaren lehen-dabiziko dosia jaso duten 60 urtetik beherako pertsonen baimen informatua sinatu behar izatea baldin eta txerto horren beraren bigarren dosia jaso nahi badute?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko obrei aurre egiteko finantzabideei buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko obrei aurre egiteko finantzabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ekainaren 3ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite andreak agerraldi publiko batean iragarri zituen Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko proiektuari buruzko azken berriak. Obraren hasierako aurrekontua 100 milioi eurotik gorakoa da, eta 2022tik 2025ra bitarte luzatuko bide dira.

Horregatik guztiagatik, hauxe galdetzen diogu Gobernuko lehendakariari:

Zer finantzabide darabilzu gogoan inbertsio horri aurre egiteko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, berdintasunerako, indarkeria ezarako eta bizikidetzarako hezkuntza afektibo-sexualari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, berdintasunerako, indarkeria ezarako eta bizikidetzarako hezkuntza afektibo-sexualari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2021eko ekainaren 3ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salako Onarpen Salak erabaki du izapidetzeko ez onartzea Nafarroako Gobernuak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurka Nafarroako Gobernuak prestatutako kasazio-errekurtsoa; epai haren bidez, deuseztatu egin zen Skolae hezkidetzeta-programa, erregelamendu bat balitz bezala izapidetu behar zelakoan.

Iragan irailean, Nafarroako Gobernuo Hezkuntzako kontseilariak iragarri zuen foru dekretu bat prestatuko zutela, Skolae hezkidetzaprogramak “araudiak babestutako curriculum-tes-tuinguru eta -izaera izan ditzan zeharo, erabateko segurtasun juridikoarekin”.

Izquierda-Ezkerrak balorazio oso positiboa egin du Skolae programari buruz, curriculum-material bikaina baita hezkuntza afektibo-sexualari, bizikidetzari eta indarkeria ezari buruzko edukiak jorratzeko. Halere, sarritan adierazi dugu programa hori, curriculum-proposamen hori, irakasleek erabili ahal izateko euskarri bat, gida bat, dela.

Zenbait ekimenen bidez azpimarratu dugu aldatu egin beharra dagoela curriculumari eta haren antolamenduari buruzko oinarrizko foru araudia, bertan jasotze aldera berdintasunean eta berdintasunerako hezkuntzari, indarkeria ezari eta hezkuntza afektibo-sexualari buruzko helburuak eta edukiak, zeinak, bestalde, aginduzkoak baitira jada, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasu-

nari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean nahiz Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestatzio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuan jasota daudelako.

Izquierda-Ezkerrak orobat proposatu du osagai horiek jorratzeko ikasgai bat sartzea, ez soilik zeharkako moduan, ezpada berariazko irakasgai moduan, bere ordutegi eta guzti.

Gaurkotasuneko galdera:

Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak zer aldaketa egin nahi ditu curriculumari eta antolamenduari begira, hezkuntza afektibo-sexualak, berdintasunerako hezkuntzak, indarkeriarik ezak eta bizikidetzak aginduzko izaera eduki dezaten Nafarroako unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako ikastetxe guztien hezkuntza-proiektuetan?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Galdera, enpleguaren egoerari eta horren aurreikuspeni buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, enpleguaren egoerari eta horren aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuo lehendakariak 2021eko ekainaren 3ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak gure erkidegoko enpleguaren egoerari buruz eta zer aurreikuspen darabil etorkizunari begira?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, gazteendako landa eremurako erasmus bat ezartzeari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gazteendako landa eremurako erasmus bat ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkartearen eledun Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ekainaren 3ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Reactivar Navarra-Nafarroa Susperitu Planean erabaki bat onetsi genuen, gazteendako landa eremurako erasmus bat ezarri ahal izateko. Jakin dugunez, Espainiako Gobernuak ere horren gaineko interesa erakutsi du.

Zer egin da Nafarroako Gobernuaren aldetik?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Arauk, Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko lau kide hautatzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekin-tzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legeko 13. artikulua zehazten du "Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordea sortzen dela, kide anitzeko organo independente gisa eta honako eginkizun hauek izanen dituela: aurkeztutako eskabideak baloratu eta, foru lege honen babesean, eskabideak onar daitezen edo bazter daitezen proposatzea; eta, bidezkoa denean, biktima-izaeraren deklarazioa eta, kasua bada, erreparazio-neurriak proposatzea. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordea Nafarroako Gobernu-bakearen, bizikidetasunaren eta giza eskubideen arloko departamentu eskudunari atxikiko zaio organikoki, eta foru lege honek esleitzen dizkion eginkizunak betetzean autonomiaz eta independentzia osoz jardunen du, eta dituen eginkizunak objektibotasunez, profesionaltasunez, osotasunez, inpartzialtasunez, konfidentzialtasunez eta ordenamendu juridikoa errespetatuz bete beharko ditu".

Aipatu legearen 14. artikulua xedatzen du Batzordea bederatzi kidek osatuko dute eta, besteak beste, c) letran zehazten du horietariko lau Parlamentuak hautatuko dituela beren eskubide zibil eta politikoen erabilera erabatekoa izan eta karguan jarduteko behar diren egokitasun-, zintzotasun-, kualifikazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituzten herritar adindunen artean.

Gainera, 2. eta 3. apartatuetan xedatzen du, hurrenez hurren, aukeraturiko pertsonak Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak gehiengo osoz hautatuko dituela sei urteko aldi baterako, eta kargurako hautagaiak Nafarroako Parlamentuari proposatuko dizkiotela talde parlamentarioek edo/eta giza eskubideen eta memoriaren arloko jarduerak

Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten gizarte-erakundeek.

Nafarroako Gobernuak Herriarrekiko Harremanetako kontseilariaren idazkiaren bidez, zeina 2021eko maiatzaren 26an sartu baitzen Legebiltzarreko Erregistroan, Nafarroako Parlamentuari eskatzen zaio batzorde horretako kide izanen diren lau pertsona izendatzea.

Aipatu foru lege horretan ezarritakoari jarraikiz, eta kasuari buruzko erregelamenduzko aurreikuspenik ez dagoenez, zehaztu beharrekoa gertatzen da zer prozeduraren bidez hautatuko diren Nafarroako Parlamentuak Batzorderako izendatu beharreko lau kideak. Horiek horrela, gai horren eztatidarako arau bereziak eman beharra dago, Eledunen Batzarraren boto lotesleari jarraituz.

Horretarako, eta Legebiltzarreko Erregelamenduen 37.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena.- Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako Nafarroako Parlamentuak bere ordezkari gisa izendatu beharreko lau kideak hautatzeko arauak onestea. Hona testua:

1. Hautaketa Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak eginen du gehiengo osoz sei urteko aldi baterako, talde parlamentarioek edo/eta giza eskubideen eta memoriaren arloko jarduerak Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten gizarte-erakundeek proposaturiko hautagaien artean.

Hautagitzak gehienez ere lau pertsonaz osaturik egonen dira. Beren eskubide zibil eta politikoen erabilera erabatekoa izan eta karguan jarduteko behar diren egokitasun-, zintzotasun-, kualifikazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituzten herritar adindunek osaturikoak izanen dira, eta 2021ko ekainaren 17ko 17:30ak baino lehen aurkeztu beharko dira.

2. Hautagai-proposamenei curriculum profesional bat gehitu beharko zaie, bai eta zinpeko dekla-

razio bat ere, non hautagaiak adierazten baitute beren eskubide zibil eta politikoen erabilera erabatekoa dutela; halaber, proposaturiko pertsonak emandako berariazko onarpena ere jasoko da.

3. Mahaiak, hautagaitza-aurkezpenerako epea amaituta, hautagaitzak aztertuko eta, kasua bada, aldarrikatuko ditu, egoki den osoko bilkuraren gaitzerrendan jasoak izan daitezzen. Hautagaitzaren bat errefusatua izanez gero, errekurtsua aurkeztu ahalko zaio Mahaiari, eta hark modu arrazoituan ebatzi beharko du.

4. Hautaketa Legebiltzarraren Osoko Bilkuran egingen da, paper bidezko bozketa sekretuaren bitartez. Paperetan foru parlamentariak gehienez lau izen idatzi ahalko dituzte.

Lehen bozketa bukatu eta gero emanen da boto eskuordetua. Hartara, talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzaren baitan, handienetik txikienera bozkatuko dute botoa eskuordetu duten pertsonak deituta.

5. Boto gehien eta Legebiltzarreko gehiengo absolutua lortzen dituzten lau hautagaiak izanen dira hautatuak.

6. Hautaketarako erabakigarria den berdinketa gertatuz gero, boto-kopuru bera lortu dutenen arteko bozketak errepikatuko dira, berdinketa hautsi arte.

7. Aurreko bi apartatuetan xedatutakoa bete ondoren posturen bat bete gabe gelditzen bada, arau hauetan postu hutsik izendatzeko xedaturiko prozedurari ekin beharko zaio.

8. Nafarroako Parlamentuko lehendakariari hautaketaren emaitza jakinarazita, horrek Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari jakinaraziko dio Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako hautaturiko lau kideen izendapena.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.